Euskal Kostaldeko Nazioarteko Erakustazoka • International Basque Coast Trade Show
Foire Internationale de la Côte Basque • Feria Internacional de la Costa Vasca

Avda. Iparralde, 43 • 20302 IRUN

FICOBA

# ARAUDIA

FICOBA

FICOBA

AURKIBIDEA

# FICOBA FUNDAZIOAREN AZOKA JARDUEREN ARAUDIA


**I. ATALA. ANTOLAKUNTZA ETA ESKAINITAKO ZERBITZUAK**

1. art. Erakunde Antolatzailea pag 1
2. art. Azokako Pabilioiak pag 1
3. art. Kontzeptuak pag 2
4. art. Emaniko Zerbitzuak pag 2
a) Espazioa uztea eta zerbitzuak (kargurik gabe): pag 2
b) Ordaindu beharreko zerbitzu osagarriak pag 3
c) Kontzesioak gai dituen zerbitzuak pag 4

**II ATALA. ZERBITZUETAN PARTE HARTZEA**

5. art. Erakusketarien izen ematea pag 5
6. art. Parte Hartzeko Eskaera eta gordailua pag 5
7. art. Parte Hartzeko Eskaeren onarpena eta Kontratuaren bidez esleitzea pag 5
8. art. Fakturazioa pag 6
9. art. Parte Hartzeari Ezezkoa eman eta Uko egitea pag 6
10. art. Espazioaren zesioa pag 7
11. art. Mintegia Erakusketarientzako pag 7
12. art. Moduluzko standak pag 7
13. art. FICOBAk eskainitako Stand libreen eraikuntza pag 7
14. art. Muntatzaileei Eginbidea Diseinuko standak muntatzeko pag 8
15. art. Garabiak eta orgatxoak. Merkantzien maneiua pag 8
16. art. Merkantzia eta Enbalaje hutsen biltegia-zaintza pag 8
17. art. Hornidura elektrikoa pag 8
18. art. Komunikazio zerbitzu bereziak pag 9
19. art. Ur Instalazioak eta hustubideak pag 9
20. art. Dornadurak eta moketak pag 9
21. art. Aseguruak pag 9
22. art. Altzariak pag 10
23. art. Informatika eta Ikus-entzunezkoak pag 10
24. art. Lorezaintza Ekipamendua pag 10
25. art. Sostengu-langileak (Azafatak eta interpretariak) pag 10
26. art. Zaintza pag 10
27. art. Baimen-txartelak, bereizgarriak, gonbitak eta txartelak pag 11
28. art. Publizitatea pag 12
29. art. Argitalpenak pag 13
30. art. Garbiketa pag 13
31. art. Hitzaldi Aretoak eta Erabilera Anitzeko Aretoa pag 14
32. art. Bilera pribatuak egiteko aretoak (Rooms) pag 14
33. art. Hainbat zerbitzu: ibilgailuen alokairua, ostatua, argazkigintza eta catering, pag 14
34. art. Demodromoa pag 14
35. art. Babesleak pag 14
36. art. Merchandising pag 15
37. art. Arropazaindegia pag 15
38. art. Haurtzaindegia pag 15

**III. ATALA. GIPUZKOAKO ERAKUSTAZOKAKO INSTALAZIOAK**

39. art. Instalazio elektrikoak pag 16
40. art. Korronte aldaketatik etorritako erantzukizuna pag 17
41. art. Keak eta gasak husteko instalazioak pag 17
42. art. Aire konprimiturako instalazioak pag 17

43. art. Lurrun-instalazioakr pag 17
44. art. Gas-instalazioak pag 17
45. art. Beste gasentzako instalazioak pag 17
46. art. Instalazio Bereziak pag 18
47. art. Ikuskapenak pag 18

IV. ATALA. STANDEN INSTALAZIOAK
48. art. Merkantzien sarrera pag 19
49. art. Ibilgailuen sarrera pag 19
50. art. Standetako banaketa elektrikoa pag 19
51. art. Instalazio elektrikoa erabiltzeko arauak pag 20
52. art. Eraikuntza eta dekoraziorako xedapenak pag 20
53. art. Merkantzien irteera pag 20
54. art. Merkantziak erretiratzea pag 20

V. ATALA. DISEINUKO STANDETARAKO ARAU OSAGARRIAK
55. art. Ficobatik kanpoko enpresek hornitutako Stand Libreen eraikuntza pag 22
56. art. Standen eraikuntza eta dekorazioa pag 22
57. art. Standen neurriak pag 23
58. art. Sabaien instalazioak standetan pag 23
59. art. Standak tarteko oinarekin pag 24
60. art. Aireko egiturak pag 24
61. art. Korridoreen mugan dauden hormen eraikuntza pag 24
62. art. Muntatzeko baimena pag 24
63. art. Muntaia pag 25
64. art. Muntaia Erakusketaren beste Eremu batzuetan pag 25
65. art. Muntatze eta sarrera ordutegia pag 25
66. art. Pertsonentzako baldintzak Muntatze eta Desmuntatze garaietan pag 25
67. art. Segurtasunerako Xedapen Orokorrak pag 25
68. art. Instalazio elektrikoen baimenak diseinuko standetan pag 26
69. art. Instalazioen banaketa eta tokia pag 26

PARTE VI. STANDEN FUNTZIONAMENDUA
70. art. Sarrera beste Erakusketari batzuen standetara pag 27
71. art. Mugi daitezkeen makinak eta tresnak pag 27
72. art. Standei kasu egitea pag 27
73. art. Zaratak eta bibrazioak pag 27
74. art. Segurtasuna pag 27
75. art. Asaldura edo nahasmenduak pag 28

VII. ATALA. ZERGA, ADMINISTRAZIO ETA LEGE ALORREKO XEDAPENAK

76. art. B.E.Z. itzultzea egoiliarrak ez direnei pag 29
77. art. Zerga Abantailak pag 29
78. art. Merkataritza Salerosketak pag 29
79. art. Zozketen edo Ausazko Konbinazioen araudia pag 29
80. art. Industri Jabetza Eskubideen babesa pag 29
81. art. Jabetza Intelektuala pag 29
82. art. Argazkiak, Filmen proiekzioa eta Musika Erreprodukzioak pag 30
83. art. Europako Komunitatetik kanpoko Ekipoak eta merkantziak sartzea pag 30
84. art. Ezinbesteak Bultzatutako Arrazoia pag 30
85. art. Auziak eta Auzitegi Eskuduna pag 31
86. art. Kontratu Plegua eta Parte Hartzeko Araudiaren onarpena pag 31
87. art. "Erakustaldi" bakoitzaren araudia pag 32

FICOBA

# FICOBA FUNDAZIOAREN AZOKA JARDUEREN ARAUDIA

## I.ATALA. ANTOLAKUNTZA ETA ESKAINITAKO ZERBITZUAK

### 1. art. Erakunde Antolatzailea

"Ficoba Fundazioa" da Gipuzkoako Erakustazokan –Euskal Kostaldeko lurraldearen ardatzean kokatua- mugaz gaindiko izaera duten Merkataritza Azoken sustapen, antolakuntza eta zuzendaritzaz arduratzen den Azoka Instituzioa. Irabazi asmorik gabeko Erakundea da eta arestian aipaturiko adierazpen ekonomiko horiek ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen egokitzat hartzen diren zerbitzu guztiak eskaintzen ditu. Hona hemen bere helbide soziala:
"Ficoba Fundazioa"
Iparralde Hiribidea, 43
20302 Irun (Gipuzkoa)
Tel.: 943 – 66 77 88
Faxa. 943 – 61 61 64
e-mail: ficoba@ficoba.org
Web orria: www.ficoba.org

Izaera iraunkorreko eta iraupen mugagabeko Fundazioa den aldetik, ekainaren 17ko Euskadiko Fundazioen 12/94 Legearen eta hura garatzen duten xedapenen babesean eta maiatzaren 27ko Merkataritza Jardueraren 7/94 Legearen (azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatua) arabera osatua dago FICOBA.

### 2. art. AZOKAKO PABILIOIAK

"Ficoba Fundazioak" Recinto Ferial del Bidasoa-Bidasoako Erakustazoka, S.A.ren instalazio iraunkorretan bideratzen du bere jarduera, honako helbide honetan:
Iparralde Hiribidea, 43
20302 Irun (Gipuzkoa)

Bertako instalazioak honako era honetan laburbil daitezke:
Egitura komuna:
    Eraikuntza mistoa: metalezkoa eta hormigoi armatuzkoa.
    Zorua: hormigoi armatuzko lauza
Zertxapeko altuera: 12,00m
    Ateen altuera gorena: 4,50m
    Erabilera-gainkarga Pabilioien aldean: 2000kg/m2
    Erabilera-gainkarga galeriaren aldean: 400kg/ m2
Instalazioak:
    Aire girotua: hotza, beroa eta aire berritzea.
    Elektrizitatea: 380/220v.
    Telefonoa: konexioa kutxetetan.
    Ura eta hustubideak: hartuneak kutxetetan.

1. Pabilioia: Erakusketa-azalera gordina: 1150 m2
2. Pabilioia: Erakusketa-azalera gordina: 1615 m2
3. Pabilioia: Erakusketa-azalera gordina: 2075 m2

Zabaltzeko aurreikusitako espazioa: 5000 m2
Aire zabaleko erakusketa-azalera: 7500 m2
Ataria: 800 m2, hortxe daude aurrerago aipatuko ditugun zerbitzu batzuentzako beharreko espazio fisikoak.

Salbuespen gisa, "Ficoba Fundazioak" noizbait Pabilioi horietatik kanpo ekitaldiren bat antolatzen badu, haiek ere Araudi hau bete beharko dute aplika daitekeen guztian.

**3. art. Kontzeptuak**

Araudi honetan **"Erakustaldia"** deitu zaio Gipuzkoako Erakustazokan egiten den edozein azoka-erakusketari. Erakusketariei beren merkataritza jardueren ahalik eta garapen eta eraginkortasun handiena eta jarduera horien informazio eta komunikazio onena lortzeko aukera ematen dieten erakustaldiak dira "Azokak", begi-bistako balio erantsiarekin, oro har, Euskal Kostaldeko ekonomia garatzeko, produktu eta zerbitzu berriak aurkezteko, merkatu berriak irekitzeko eta profesionalen artean hartu-emanak bideratzeko. Hala bada, ekonomia eta enpresa foro berritzailea sortuko da, Eurolurraldearen erakusleihoa izango da eta aldi berean Tribuna Atlantiko gisa jardungo du, mundu globalizatu baten barnean ekonomiaren motor gisa irudi dinamiko eta egokia indartzen lagundu ahal izateko.

"Erakusketari" izena eman zaio **"Erakustaldian"** bere izenean espazioa kontratatu duen edozein pertsona fisiko edo juridikori. **"Erakustaldian"** Erakusketari gisa parte hartzeko eskaera egin ahal izango dute **"Zuzendaritzaren"** iritziz erakustaldiak gai dituen Ekipo, Produktu eta Zerbitzuen barnean dauden industri edo merkataritza jarduerak garatzen dituzten enpresa guztiek. Erakusketari terminoa pertsona juridiko bati badagokio, pertsona fisiko bat (edo batzuk Azokarekin loturiko jarduera desberdinetarako) aukeratuko du horrek **"Zuzendaritzarekiko"** hartu-emanetaz ardura dadin.

***"Ordezkatutako enpresa"*** Erakusketari zuzenak bere Standaren barnean ordezkatzen duen enpresa bakoitza da, erakusketariak enpresa horren produktuak erakutsi edo aurkezten dituenean.

**"Zuzendaritza"**, berriz, Erakunde antolatzailea da; hauxe da, FICOBA Instituzio Azoka (ikus 1. art.)

**4. art. Emaniko zerbitzuak**

**"Zuzendaritzak"** honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkie parte hartzaileei:

a) Erakusketariari beharreko espazioa uzteaz gainera (ikus 5. art.) honako beste zerbitzu hauek ematen dira (kargurik gabe):

- Erakusketariarentzako dokumentazioa, planoak, foiletoak, newsletter eta Sektorearen behatokia, hainbat euskarritan.
- Informazio orokorrerako eta turismo informaziorako langileak.
- Megafonia (instalazioak eta langileak).
- Erizaindegia (instalazioak, langileak eta anbulantzia).
- Atezainak, txartel-saltzaileak eta zaindariak.
- Aire girotua (instalazioen mantenua eta erregaiak).
- Gasak ateratzeko instalazioak.
- Zerbitzu elektrikoa (indar eta argiteria orokorreko instalazioen mantenua).
- Suteak itzaltzeko ekipoak eta instalazioak.
- Pabilioien garbiketa orokorra (standaren barnealdeko espazioa ez dago horretan sartua).
- Postontzia.



- Business Center (Erakusketariaren VIP Kluba) taberna zerbitzuarekin.
- Prentsa aretoa.
- "Erakustaldia" iragartzeko kartelen errotulazioa, bereziki Azokaren kanpoaldean daudenak.
- Erakusketarien seinalizaziorako bastidoreen errotulazioa.
- Ertzaintza eta Udaltzaingo zerbitzuen eskaera.
- Banku zerbitzua kutxazain automatikoaren bidez.
- "Ficoba Fundazioari" loturiko Instituzioei buruzko informazioa.
- Parte hartzaileei inkestak egin eta haien tabulazioaren emaitzak.
- Aduana despatxua.
- Areto bat bisitarien eskura Interneten sartzeko aukerarekin.
- Beren produktuentzako banatzaileak aurkitu nahi dituzten Erakusketarien sustapen zerbitzua.

b) Beste zerbitzu osagarri hauek ere eskaintzen dira diru ordain espezifikoarekin:

b.1) Mintegia Erakusketarientzako (ikus 11. art).
b.2) Moduluzko standak (ikus 12. art.).
b.3) Diseinuko standen muntaia (ikus 13. eta 14. art.).
b.4) Garabiak eta orgatxoak. Merkantzien maneiua (ikus 15. art.).
b.5) Merkantzia eta enbalaje hutsen biltegia-zaintza (ikus 16. art.)
b.6) Hornidura Elektrikoa (ikus 17. art.).
b.7) Komunikazioak (ikus 18. art.).
b.8) Ur instalazioak eta hustubideak (ikus 19. art.).
b.9) Dornadurak eta Moketak (ikus 20. art.).
b.10) Aseguruak (ikus 21. art.).
b.11) Altzariak (ikus 22. art.)
b.12) Informatika eta ikus-entzunezko ekipoak (ikus 23. art.)
b.13) Lorezaintza Ekipamendua (ikus 24. art.)
b.14) Sostengu-langileak (ikus 25. art.)
b.15) Zaintza (ikus 26. art.).
b.16) Baimen-txartelak, bereizgarriak, gonbitak eta txartelak (ikus 27. art.).
b.17) Publizitatea (ikus 28. art.).
b.18) Argitalpenak (ikus 29. art.).
b.19) Standen garbiketa (ikus 30. art.).
b.20) Hitzaldi aretoa (ikus 31. art.).
b.21) Bilera pribatuak egiteko aretoak (Rooms) (ikus 32. art.).
b.22) Ibilgailuak, Ostatua, Argazkigintza eta Catering (ikus 33. art.)
b.23) Demodromoa (ikus 34. art.).
b.24) Babesleak (ikus 35. art.).
b.25) Merchandising (ikus 36. art.).
b.26) Arropazaindegia (ikus 37. art.).
b.27) Haurtzaindegia (ikus 38. art.).

c) Kontzesioak gai dituen zerbitzuak ematea esleipendunek zehaztutako baldintzetan:

c.1) Aparkalekua 1100 ibilgailu sartzeko lekuarekin. FICOBAK lurpeko aparkalekuetarako abonuak jartzen ditu Erakusketarien eskura **"Erakustaldiak"** irauten duen egunetan. Zerbitzuen Karpetan jaso da abonu horien zenbatekoa.

c.2) Jatetxea 500 lagunentzako lekuarekin.
c.3) Taberna-kafetegia 250 lagunentzako lekuarekin.
c.4) Denda prentsa, "souvenirs" eta premia biziko gai batzuekin.



## II.ATALA. ZERBITZUETAN PARTE HARTZEA

**5. art. Erakusketarien izen ematea**

Espazioa uzteko ondoko urrats hauek emango dira.

**6. art. Parte Hartzeko eskaera eta Gordailua**

**"Zuzendaritzak"**, behar den denborarekin, Parte Hartzeko Eskaera orria bidaliko die egokitzat hartzen dituen balizko Erakusketari guztiei. Erakusketariak orri horren atal guztiak behar bezala beteko ditu, makinaz edo letra larriz, eta enpresa eskaeragileak argi identifikatuko duen pertsona ahalordedunak sinatuko du.

**"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik izango **Parte Hartzeko Eskaera** behar bezala ez betetzeagatik edo erabat ez osatzeagatik etorritako ez-egite edo okerren aurrean.

Erakusketariek **"Zuzendaritzari"** beren espazio beharrak adierazi ahal izango dizkiote aurreko **"Erakustaldia"** amaitzen den egunaren hurrengotik hasita.

Erakusketariak **"Erakustaldia"** hasi baino zazpi hilabete lehenago bidaliko du bere **Parte Hartzeko Eskaera. Parte Hartzeko Eskaera** horrekin batean, **Parte Hartzeko Eskaera** orrian aipatzen den 230 euroko kopurua (BEZrik ez du) bidaliko du Erakusketariak Gordailu gisa, erakusketari horrek parte hartzeari uko egiten badio sortuko liratekeen gastuak **"Zuzendaritzari"** konpentsatzeko. **"Erakustaldia"** amaitu ondoren diru hori itzuli egingo zaio Erakusketariari, baina hark ezin izango du kopuru hori erabili bertan fakturak eta abar kargatzeko. Erakusketariak parte hartzeari uko egiten badio, ez du utzitako kopuru hori itzultzeko eskubiderik izango.

**7. art. Parte hartzeko eskaeren onarpena eta Kontratuaren bidez esleitzea**

Erakusketariak eta erakutsi beharreko produktuak onartzeko eskubidea gordetzen du **"Zuzendaritzak"**. **Parte hartzeko eskaeran** jasotako produktuen jabe diren enpresak soilik onartuko dira **"Erakustaldian"**.

Erabilitako makineria eta ekipoak ezin izango dira erakutsi **"Zuzendaritzak"** ez badu espres baimentzen.

Espazioaren esleipena **"Zuzendaritzaren"** eskubidea da soilik. Nolanahi ere, erakusketa osoari eta erakutsi beharreko materialei loturiko kontsiderazio tekniko edo/eta sektorialak hartuko dira kontuan esleipen hori egiteko orduan.

Horrenbestez, **"Zuzendaritzak"** erabakiko ditu Parte Hartzeko Eskaerak, eta horretarako, beharreko Kontratua, **"Erakustaldiaren"** Araudia eta **Zerbitzuen Karpeta** bidaliko ditu. Zuzendaritzak ez du bere erabakia hartzeko arrazoiak zein izan diren azaltzeko obligaziorik eta aurreko egoerak ez dira aurrekaritzat hartuko.
Edozein arrazoirengatik **"Zuzendaritzak"** ezin badu eskatutako espazioa Erakusketariaren eskura jarri eta tamaina zertxobait desberdinekoa eskaintzen badio, erakusketariak –aldez aurretik jakinarazi eta bere adostasuna eman ondoren- aldatutako espazio horri dagokion kopurua ordainduko du beharreko Kontratuan azalduko den bezala, eta kontu horri dagokionean Erakusketariak ez du inolako erreklamaziorik egingo.

Erabat debekatuta dago kontratatutiko espazioa trukean, zesioan edo alokairuan hirugarren pertsonei ematea.

**"Zuzendaritzak" Parte Hartzeko Kontratua** bidaliko dio Enpresa Erakusketariari. Kontratuan enpresa horren IFK azalduko da eta dagozkion kokalekua eta azalera ere adieraziko dira. Horrekin batean, lehen faktura bidaliko da. Hori guztia **"Erakustaldia"** hasi baino sei (6) hilabete lehenago.

Espazioen betiko esleipena halakotzat hartuko da honako bi zirkunstantzia hauek betetzen direnean:

- **"Zuzendaritzak"** Erakusketariaren **Parte Hartzeko Kontratua** sinatuta jaso duenean.
- Erakusketariak ordaindu beharreko lehen zatiari dagokion fakturaren zenbatekoa ordaindu duenean.

Erakusketariak Kontratua sinatu ondoren espazioa murrizteko eskatzen badu, kontrataturiko guztiaren eskubidea galduko du, eta beste kokaleku bat eskatu beharko du libre daudenen artean.

## 8. art. Fakturazioa

Eskatutako espazioei dagozkien guztizko ordainketak hasiera batean metro karratuetan kalkulatuko dira, eta **"Zuzendaritzak"** zehaztuko ditu **"Erakustaldi"** bakoitzerako. Standa neurtzerakoan sortzen den m2 frakzio oro, m2 oso gisa hartuko da.

**"Zuzendaritzak"** zenbateko bereziak zehaztu ahal izango ditu espazio batzuetarako, espazio horien ezaugarriak, kokalekua edo aprobetxatzeko era bereziak direnean.

-1. faktura espazioaren zenbatekoaren %50ari dagokio. Ordainketa hori derrigorrez helbideratutako erreziboaren bidez egingo da hamabost (15) egunera.

-2. faktura –esleitutako espazioaren gainerako %50ari dagokiona- **"Erakustaldia"** hasi baino 90 egun lehenago egingo da, eta **"Erakustaldia"** hasi baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da faktura hori.

Fakturak ez badira arestian aipaturiko modu horretan ordaintzen, indarrik gabe geratuko da **Parte Hartzeko Kontratua.**

Lehen ordainketa izan ezik, beste edozein arrazoirengatik egin beharreko gainerako ordainketak "Ficoba Fundazioaren" alde egingo dira beti, honako formula hauetako bat erabilita:

- Bankuan helbideratuta.
- "Ficoba Fundazioan" diru sarrera eginez.
- "Ficoba Fundazioaren" aldeko banku transferentziaren bidez bere kontu korrontean, fakturan agertzen den moduan.

**"Zuzendaritzak"** Legeak eskaintzen dizkion eskubide guztiak erabiliko ditu bere faktura guztiak kobratzeko, eta instalazioen eta haietan erakutsitako ekipoen gainean zuzenean jardungo du, hala behar izanez gero.

## 9. art. Parte Hartzeari Ezezkoa eman eta Uko egitea

**"Erakustaldian"** parte hartzeari uko egiten dioten Erakusketariek uko egite horren berri idatziz eman beharko diote beti "Zuzendaritzari" "Erakusketaldia" hasi aurreko bost (5) hilabeteak baino lehen. Kasu horretan, ordura arte espazioaren alokairu kontzeptuan ordaindutako kopuruen ehuneko ehun (%100) itzuliko zaio uko egin duenari.



Parte hartzeari uko egitea ez bada arestian aipaturiko modu horretan jakinarazten, emaniko kopuruak itzultzeko eskubidea galduko du Erakusketariak.

Erakusketariak parte hartzeari uko egitean, jada **"Zuzendaritzari"** ordaindutako kopuruaren %50 galdu egingo du uko egite hori erakustaldia hasi aurreko bosgarren (5.) eta bigarren (2.) hilabete artean gertatzen bada. Uko egitea **"Erakustaldia"** hasi aurreko hirurogei (60) egunetan gertatzen bada, bere espazioaren guztizko zenbatekoaren ehuneko hamar (%10) itzuliko zaio, eta espazio hori beste Erakusketari batek okupatu ahal izango du gero.

Aipaturiko hipotesi horietako edozeinetan erakusketariak uko eginez gero, espazio hori egokitzat hartzen duenari esleitzeko ahalmena izango du **"Zuzendaritzak".**

Gordailu gisa utzitako kopurua ez da inola ere itzuliko.

## 10. art. Espazioaren zesioa

**"Erakustaldia"** hasteko bezperan Erakusketaria ez bada **"Zuzendaritzaren"** aurrean azaldu edo ez badu bere espazioa okupatu, **"Zuzendaritzak"** espazio hori beste bati utzi ahal izango dio, eta lehenengoari inolako kalte-ordainik eta jarritako kopurua itzultzeko obligaziorik ez du izango.

## 11.art. Mintegia Erakusketarientzako

**"Erakusketaldia"** hasi baino hilabeteren bat lehenago egun bateko Mintegia antolatuko da Erakusketarientzako, erakusketari horiei beren parte hartzea optimiza dezaten laguntzeko, beren helburuak, jarduera programak –**"Erakustaldia"** hasi aurretik, bitartean eta gero- zehaztu eta beren presentziaren emaitzak ebalua ditzaten. Zerbitzu horren zenbatekoa lan-bazkariaren eta parte hartzaileei emaniko materialaren kostua izango da soilik.

## 12. art. Moduluzko standak

Era honetako standak nahi direnean, halaxe adierazi behar da **Parte hartzeko eskaeran** eta **Parte Hartzeko Kontratuan** zehaztuko da. Bere guztizko kopuruaren bi erdiak hurrenez hurren sartuko dira 8. artikuluak aipagai dituen "zoruaren zesiorako" bi fakturetan.

Moduluzko Standaren Ekipamendu osagarriaren eskaera egiteko, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia igorriko zaio **"Zuzendaritzari"**, behar bezala beteta, dagokion epean, eta karpeta horretan eta **Erakustaldiaren Araudian** zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

## 13. art. FICOBAK eskainitako Stand libreen (Diseinuko Standak) eraikuntza

Moduluzko standa ez bada Erakusketariaren beharretarako egokia eta bere nahietarako diseinuko stand bat nahiago badu, Erakusketaria FICOBArekin harremanetan jar daiteke, eta honek stand proiektu bat prestatu eta instalatuko dio, Erakusketariak Proiektua zehazten duen kasuetan ez bezala, ondoko artikuluetan adierazitakoaren arabera.

Era horretako standa eskatzeko, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia igorriko zaio **"Zuzendaritzari"**, behar bezala beteta, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**14. art. Muntatzaileei eginbidea diseinuko Standak muntatzeko**

Diseinuko stand baten muntaia lanetaz arduratuko den enpresak **Zerbitzuen Karpetan** azaltzen den zenbatekoa ordainduko dio **"Zuzendaritzari"**, behar bezala bideratua izan dadin, enpresa horrek Pabilioien argiztapen eta ur eta elektrizitate kontsumoaren ondorioz sor ditzakeen gastuengatik.

Standaren muntaiarik ez badago, arestian aipaturiko **Zerbitzuen Karpeta** horretan azaltzen den zenbatekoa ordainduko du Erakusketariak **"Erakustaldia"** hasi baino lehen.

Standa muntatu eta desmuntatzeko baimena eskatzeko, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia igorriko zaio **"Zuzendaritzari"**, behar bezala beteta, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

Gainerakoan, Araudi honen **V. Atalean** zehazten diren berezitasun guztiak beteko dituzte enpresa horiek.

**15. art. Garabiak eta orgatxoak. Merkantzien maneiua.**

Zerbitzu horiek kontratatu nahi dituen enpresak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

Inprimaki hori fax bidez igorri ahal izango da, edo bestela, Erakustazokako bulegoetan aurkez daiteke zerbitzuaren eskaria egiteko orduan. Halaz ere, zerbitzu hobea lortu ahal izateko, inprimakia faxez bidaltzea gomendatzen da muntaia egiten hasi baino bost (5) egun lehenago.

Kontratatuiko zerbitzuen guztizko kopurua Erakustazokako bulegoetan ordaindu behar da. Bestela, eskatutako zerbitzu hori ezin izango da eman.

**16. art. Merkantzia eta Enbalaje hutsen biltegia-zaintza**

Zerbitzu hau kontratatu nahi duen enpresak Zerbitzuen Karpetatik dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

Inprimaki hori fax bidez igorri ahal izango da, edo bestela, Erakustazokako bulegoetan aurkez daiteke zerbitzuaren eskaria egiteko orduan. Halaz ere, zerbitzu hobea lortu ahal izateko, inprimakia faxez bidaltzea gomendatzen da muntaia egiten hasi baino bost (5) egun lehenago.

Erakusketa Pabilioitik eta Erakustazoka osotik enbalaje guztiak atera behar dira **"Erakustaldia"** hasi baino hogeita lau (24) ordu lehenagotik. Bestela, **"Zuzendaritzak"** husteko agindua eman dezake eta gastuak Erakusketariaren kontura izango dira.

**"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik izango Erakusketariak bere garaian erretiratu ez dituen enbalaje-materialen aurrean.

**17. art. Hornidura elektrikoa**

Erakustazokako argiztapen orokorraren eta larrialditarako argiteriaren gastuak **"Zuzendaritzaren"** kontura izango dira.



**Zerbitzuen Karpetan** aipatzen diren energia maila desberdinen bidez potentzia elektrikoaren hornidura eskatu ahal izango du Erakusketariak. Hornidura elektrikoa eskatzeko, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia igorriko zaio **"Zuzendaritzari"**, behar bezala beteta, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**Zerbitzuen Karpeta** horretan zehaztutako xehetasunen arabera fakturatuko du **"Zuzendaritzak"** standaren kostu elektrikoa.

Stand bakoitzean kontsumituriko energiaren neurketak egiteko aukera izango du **"Zuzendaritzak".**

Erakusketariak 10kW-etik gorako potentzia behar badu, eskatu egin beharko dio **"Zuzendaritzari"**, lehen aipaturiko epe gorenean, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia igorrita, eta dagokion zenbatekoa ordainduko du.

**18. art. Komunikazio zerbitzu bereziak**

Ahots eta datu lineak behar dituzten Erakusketariek, horren eskaera egiteko, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia igorriko diote **"Zuzendaritzari"**, behar bezala beteta, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

Gipuzkoako Erakustazokak "Fast Ethernet" konexioa du Gb bateko (1) "back bone"rekin.

**19. art. Ur Instalazioak eta hustubideak**

Ur eta hustubide instalazioak behar dituzten Erakusketariek **Parte Hartzeko Eskaeran** jakinarazi behar dute standak hobeto banatu ahal izateko, eta **Zerbitzuen Karpetan** zehaztutako kopurua ordainduko dute.

Era berean, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia igorriko diote **"Zuzendaritzari"**, behar bezala beteta, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**20. art. Dornadurak eta Moketak**

Instalazio horiek kontratatu nahi dituen enpresak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**21. art. Aseguruak**

Erantzukizun Zibilaren asegurua kontratatzeko obligazioa du Erakusketariak, aurrerago zehaztuko diren estaldurak ziurtatu ahal izateko.

Erakusketariek aseguru hori kontratatu behar dute **"Erakustaldian"** parte hartzeko, "Ficoba Fundazioaren" polizaren bidez. Kontratazio hori formalizatu eta poliza horri atxikitzeko, **Zerbitzuen Karpetan** eta **Erakustaldiaren Araudian** ageri den kopurua ordaindu beharko du Erakusketariak aseguru-prima eta zerbitzuen kontzeptuan, Erantzukizun Zibilaren kontzeptuaren barnean. Hirugarren pertsonei eragindako kalte pertsonalak edo/eta materialak sartzen dira aseguru horretan Erakusketaria alor zibilean kalte horien erantzulea denean.

Aseguratutako kapitala: 600.000 €.
Kalte-ordain gorena biktima bakoitzeko: 150.000 €.
Erakusketariak 600 €-ko frankizia hartzen du bere gain.

Nolanahi ere, Erakusketariak bere ekipoak eta materialak aseguratuta eduki behar ditu honako kalte hauen aurrean: suteak, leherketak, tximista erortzeak (jatorri elektrikoko kalte guztiak), kalte, lapurreta, garraio, karga eta deskargak muntaia, desmuntaia eta **"Erakustaldia"** egiten den bitartean. Horretarako, aseguru konpainia egoki batekin harremanetan jarri dezake **"Zuzendaritzak"**.

**22. art. Altzariak**

Zerbitzu hau kontratatu nahi duen Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**23. art. Informatika eta Ikus-entzunezkoak**

Zerbitzu hau kontratatu nahi duen Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**24. art. Lorezaintza Ekipamendua**

Zerbitzu hau kontratatu nahi duen Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**Art. 25. Sostengu-langileak (Azafatak eta interpretariak)**

Zerbitzu hau kontratatu nahi duen Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**Art.26. Zaintza**

**"Erakustaldi"** bakoitzaren bisita orduetan zaintza eta ordena zerbitzu bat edukiko du **"Zuzendaritzak"** Erakustazokan. Gauez ere antzeko zerbitzu bat izango da.

Zerbitzua hobeto eman ahal izateko, beharrezkotzat hartzen dituen kontrolak jarri ahal izango ditu **"Zuzendaritzak"**.

Nolanahi ere, **"Zuzendaritzak"** jarritako zaintza zerbitzuak (sarbideak eta kanpoaldeko zaintza) erakustaldiak irauten duen denbora guztian (muntaia, ospakizuna eta desmuntaia), eta Erakustazokako zaintza zerbitzu orokorrak (Pabilioi, biltegi eta abarren barnealdea) disuasio izaera dute, eta segurtasun orokorra eta prebentzioa eskaintzen dute ordena eta sute edo larrialdien aurkako segurtasun kontuetan. Horrenbestez, inondik ere ez da Erakusketari bakoitzaren ondasun partikularrak zaintzeko segurtasuna izango. Beraz, **"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik stand bakoitzean utzitako ekipo edo objektuen lapurretaren aurrean, ez eta **"Erakustaldia"** egin aurretik, bitartean eta ondoren objektuek, laginek, efektu pertsonalek, muntaia materialak edo/eta Erakusketa materialak jasan ditzaketen kalteen aurrean.



Era berean, **"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik Erakustazokan aparkaturiko ibilgailuetan edo haien barnean dagoen materialean eginiko kalteen aurrean.

Horrenbestez, Erakusketariak arduratu behar du bere standa eta hartan erakutsitako ondasunak zaintzeaz **"Erakustaldiak"** duen ordutegian. Ordutegi horretatik kanpo debekatuta dago standetako langileak horietan egotea. Standa muntatu eta desmuntatzen den bitartean norbere ondasunak are arreta handiagoz zaintzea gomendatzen zaie Erakusketariei. Erraz eraman daitezkeen baliozko objektuak giltzapean eduki behar dira gauez.

Erakustaldia itxi ondoko eguneko 8etatik aurrera, Erakusketari bakoitza arduratuko da bere material eta instalazioen segurtasunaz, muntaia garaian bezalaxe. Nolanahi ere, **"Erakustaldia"** muntatzen eta desmuntatzen den bitartean Pabilioiak zaintzeko obligazioa izango du **"Zuzendaritzak"**.

Gainera, zaintza zerbitzu bat kontratatu ahal izango dute Erakusketariek. Horretarako, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete behar dute eta **"Zuzendaritzaren"** bidez tramitatu behar dute derrigorrez. Zerbitzu horren zenbatekoa ere jasoa dago arestian aipaturiko **Zerbitzuen Karpeta** horretan, baina Zaintza enpresa izango da standean gerta litezkeen okerren erantzule bakarra.

**27. art. Baimen-txartelak, bereizgarriak, gonbitak eta txartelak**

Bereizgarriak Muntatze eta Desmuntatze garaian
Muntatzaile bereizgarri horiek muntatze eta desmuntatze garaietan soilik balio izango dute.

Muntatze eta desmuntatze garaietan lan egin behar duten Enpresa Erakusketaritik kanpoko pertsonek bereizgarri bat jasoko dute langile bakoitzeko.

Muntatze lanetan parte hartuko duten pertsonen zerrendarekin eta dagozkien NANekin batera, Gizarte Segurantza eta abar ordaintzen dituela egiaztatuko du enpresak **"Zuzendaritzaren"** aurrean. Horrenbestez, **"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik izango inondik ere.

Bereizgarri horiek eskatzeko, Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**Erakusketariaren baimen-txartelak eta Aparkalekurako Txartelak Erakustaldiak irauten duen bitartean**
Erakusketariaren baimen-txartelek aukera emango dute **"Erakustaldiak"** irauten duen bitartean nahi denean sartzeko.

Erakusketariaren baimen-txartelak izendunak eta besterenezinak dira.

Baimen-txartel horiek lortzeko, Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan eta **Erakustaldiaren Araudian** zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

Baimen-txartela edo bereizgarria eskuratzeko eskubidea duten langile atzerritarrek beren pasaportearekin identifikatu beharko dute edo, Europako Batasuneko langileak badira, beren estatu komunitarioan eginiko nortasun agiriaren bidez. Langile horiek kontratatu dituzten enpresek araudi espainiarra betetzeko konpromisoa hartzen dute laneko arriskuen prebentzioaren alorrean, eta kontu horri dagokionean inolako erantzukizunik ez du izango **"Zuzendaritzak"**.

Aparkalekurako Txartelak eskatzeko, Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan eta **Erakustaldiaren Araudian** zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**Bisitari Profesionalentzako gonbitak**

Bezeroentzako Gonbitak eta sustapenerako hainbat material enpresa Erakusketarien eskura jarriko dira Erakusketari horiek beren sustapen-ekintza zuzenak egin ditzaten. Horiek eskatzeko, Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan eta **Erakustaldiaren Araudian** zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

Kontratatuta m2 bakoitzeko **"Erakustaldiaren"** Araudiak zehazten duen gonbita kopurua izateko eskubidea du Erakusketariak, eta eskatzen diren gainerakoak, berriz, arestian aipaturiko araudi horrek zehaztutako moduan ordainduko dira.

Bisitari Profesionalentzako gonbitak behar bezala bete eta kreditazio sarreretan aurkeztuko dira, eta **"Erakustaldiak"** irauten duen egun guztietarako balio izango dute.

**Baimen-txartel Kolektiboak**

Taldeentzako gonbitak lortzeko, Eskola, Unibertsitate edo antzeko beste kolektiboek aurrez **"Zuzendaritzari"** eskaera egin beharko diote. Eskaria aztertu ondoren, zuzendaritzak onartu edo gaitzetsi egingo ditu taldeentzako gonbita horiek.

## 28. art. Publizitatea

Honako atal hauek ditu Publizitate inprimakiak: Publizitatea Katalogo Ofizialean, Barne Publizitatea eta Kanpo Publizitatea.

**Publizitatea Katalogo Ofizialean**

Zerbitzuen Karpetan zehaztutako baldintzen arabera ordainduko da **Publizitatea Katalogoan.**

**Barne Publizitatea**

Egokitzat hartzen duen lekuetan, gauzak hobeto seinaleztatzeko kartelak edo adierazpen-panelak jartzeko eskubidea du **"Zuzendaritzak"**, eta Erakusketariek ezin izango dituzte kartel horiek kendu eta estali.

Erakusketariak behin-behinean publizitatea kontratatu ahal izango du **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia beteta.

Kasu horretan, Erakusketariak okupatzen duen standaren mugen barnean soilik erabili ahal izango ditu erakusgai dituen produktuen sustapenerako bideak edo publizitatea, eta erabat debekatuta dago Pabilioien korridoreetan eta Erakustazokako beste esparruetan publizitate eta sustapen hori egitea.

Erakusketarien publizitate guztia gai profesionalei loturikoa izango da soilik. Erreklamazioak egiteko bide eman duen publizitatearen banaketa debekatzeko eta material hori **"Erakustaldia"** amaitu arte gordetzeko eskubidea du **"Zuzendaritzak".**

Debekatuta dago Standak dituzten edo ordezkatuta dauden Erakusketariena ez den hirugarren pertsonen publizitatea egitea. Erakusketariarena edo ordezkatutako enpresarena ez den artikulu oro erakutsi edo artikulu horien publizitatea egiteko, **"Zuzendaritzaren"** baimena lortu beharko da aurretik.



**"Zuzendaritzaren"** baimena lortu beharko da standaren altuera gorenetik gora publizitate materiala jarri ahal izateko.

Publizitate-bide optiko, mugikor edo akustikoak soilik onartuko dira standaren ondokoei ez bazaie inolako eragozpenik sortzen.

**Kanpo Publizitatea**

**"Zuzendaritzak"** erabakiko ditu behin-behinean Kanpo Publizitatearen euskarriak, horretarako zehaztutako moduan eta baldintzetan betiere.

Erakusketariak euskarri horietan jartzeko publizitatea kontratatu ahal izango du **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia beteta.

Kasu guztietan, **Zerbitzuen Karpetako** publizitate inprimakia **"Zuzendaritzari"** igorri behar zaio, behar bezala beteta, dagokion epean, eta karpeta horretan eta zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

## 29. art. Argitalpenak

**"Zuzendaritzak"** erabakiko du **"Erakustaldi"** bakoitzerako zein argitalpen argitaratu behar dituen.

**Katalogoa**

**"Erakustaldiaren"** Katalogo Ofizialean orrialde bat sartzea erabat doanekoa da Erakusketarientzako. Hortik aurrera sartzen den orrialde bakoitzeko –Zerbitzuen Karpetan zehazten den kopuru gorena arte- Karpeta horretan zehaztutako kopurua ordaindu beharko du Erakusketariak. Hori eskatzeko, Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan eta **Erakustaldiaren Araudian** zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik izango Katalogoan gerta daitekeen edozein eratako oker, akats edo ez-egite total edo partzialen aurrean, oker horien errua Erakusketariarena denean.

**Memoria**

**"Erakustaldia"** amaitu ondoren, **"Zuzendaritzak"** Memoria argitaratuko du, eta **"Erakustaldi"** horren inguruko datu garrantzitsuenak ezagutzera emango ditu.
Katalogoa eta Memoria Erakusketari bakoitzari emango zaizkio inolako kosturik gabe.

**"Zuzendaritzak"** edozein eratako informazioa edozein euskarritan argitaratzeko ahalmena izango du Erakusketariek emaniko datuekin, eta baita **"Erakustaldiko"** datu garrantzitsuenekin ere.

## 30. art. Garbiketa

**"Zuzendaritza"** arduratuko da Pabilioietako esparru komunen (korridoreak, zakarrontziak jaso eta abar) garbiketaz. Era berean, standetako paperontziak eta hautsontziak hustuko dira, baina Erakusketaria arduratuko da standaren berariazko garbiketaz.

Muntatze eta erakustaldia amaitu ondoren desmuntatze lana amaitu ondoren, kontrataturiko azalera erabat garbi utzi behar du Erakusketariak. Diseinuko standen eraikuntza edo/eta dekorazioaz arduratu diren enpresek hondakinak jaso beharko dituzte. Bestela, Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetan** ageri den Garbiketa Zerbitzua kontratatu beharko du **"Zuzendaritzaren"** bidez. Hasteko egunean, **"Erakustaldia"** ireki baino ordu erdi bat lehenago amaitu behar da standen garbiketa.

Horretarako egokitutako lekuetan botako dira hondakinak.

Standaren garbiketa bere langileen bidez egin dezake Erakusketariak, edo bestela, **"Zuzendaritzarekin"** garbiketa zerbitzua kontrata dezake. Horretarako, Erakusketariak **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio, dagokion epean, eta karpeta horretan eta zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

Bisita orduetan standetan zikinkeriaren bat badago, berehala garbitu behar da. Era berean, **"Zuzendaritzari"** jakinarazi behar zaio Erakustazokako instalazio orokorretan edozein akats ikusiz gero.

**31. art. Hitzaldi Aretoak eta Erabilera Anitzeko Aretoa**

Erakusketariak Balio Anitzeko Aretoetako batean edo Erabilera Anitzeko Aretoan –aldi bereko itzulpen zerbitzua izateko aukerarekin- aurkezpen bat egin, hitzaldi bat programatu, mintegi bat garatu, cocktail bat eskaini eta abar egin nahi badu, **"Zuzendaritzari"** jakinarazi behar dio –areto hori erreserbatzeko-, eta **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**32. art. Bilera pribatuak egiteko aretoak (Rooms)**

Erakusketariak bezeroekin bilera pribatuak egiteko Aretoetako bat erabili nahi badu, **"Zuzendaritzari"** jakinarazi behar dio –areto hori erreserbatzeko-, eta **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia bete eta **"Zuzendaritzari"** igorri behar dio dagokion epean, eta karpeta horretan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.

**33. art. Hainbat zerbitzu: ibilgailuen alokairua, ostatua, argazkigintza eta catering**

Zerbitzu horietakoren bat behar duen Erakusketariak behin-behinean kontratatu ahal izango du, **Zerbitzuen Karpetatik** dagokion inprimakia beteta.

**34. art. Demodromoa**

Demodromoa dagoen kasuetan, beren produktu, ekipo edo zerbitzuetako batzuk bertan edukitzeko eskatu ahal izango dute Erakusketariek, eta horretarako, **"Zuzendaritzak"** aurreikusitako zenbatekoa ordaindu beharko dute.

**35. art. Babesleak**

Erakusketariak babesle izateko aukerak zehaztuko ditu **"Zuzendaritzak"** egokitzat hartzen dituen Erakustaldietan. Horretarako, dagokion inprimakia igorriko du aurreikusitako ekonomia baldintzak kontuan hartuta.



**36. art. Merchandising**

**"Zuzendaritzak"** zehaztuko du **"Erakustaldiaren"** irudiarekin zein artikulu merkaturatuko diren eta, hala behar izanez gero, zehaztu egingo ditu Erakusketariek beren merkataritza marka artikulu horietan sartzeko baldintzak, eta baita artikulu horien salmenta prezioak ere.

**37. art. Arropazaindegia**

Gipuzkoako Erakustazokak arropazaindegi eta kontsigna zerbitzua jarriko du bisitarien eskura, eta dagokion lekuan ageriko tokian azalduko da zerbitzu horren prezioa.

**38. art. Haurtzaindegia**

Helduek **"Erakustaldia"** bisitatzen duten bitartean haurrak behar bezala zainduta egon daitezen, Gipuzkoako Erakustazokak haurtzaindegi bat du, eta dagokion lekuan ageriko tokian azalduko da zerbitzu horren prezioa.

## III. ATALA. GIPUZKOAKO ERAKUSTAZOKAKO INSTALAZIOAK

**39. art. Instalazio elektrikoak.**

Gipuzkoako Erakustazokako instalazioei jarraiki, Behe-tentsiorako Araudi Elektroteknikoak (abuztuaren 2ko 842/2002 Dekretua) eta Jarraibide Tekniko Osagarriek eskatutako baldintzen arabera egingo da instalazio oro. Derrigorrez **"Zuzendaritzak"** onartu beharko ditu standetan eginiko instalazio elektriko guztiak. Horretarako, Ikuskapen Elektrikoaren orria eman behar dio instalatzaileak **"Zuzendaritzari"**, behar bezala betea eta eskumena duen agintariak baimendutako instalatzaile elektriko batek zigilatua.

Standak elikatzeko energia elektriko guztia **"Zuzendaritzak"** eskainiko du, eta hornidiuraren ezaugarriak 380 volt izango dira fase artean eta 220 volt fase eta neutroaren artean. Korronte zuzenean eta hornidura orokorra ez den beste edozein egonkortasun eta jarraipen egoeran behar diren hornidurak ez dagozkio **"Zuzendaritzari"**, eta horiek instalatzailearen edo standaren erabiltzailearen kontura izango dira kasu guztietan, eta gainera, **"Zuzendaritzaren"** baimena lortu behar da aurretik.

**"Zuzendaritzak"**, behar izanez gero, hornidiuraren potentzia muga dezake beste stand batzuetan eragin negatiboa duenean edo bere linea eta instalazioetan gainkarga edo segurtasun arrazoiak daudenean.

0,85 eta 1 arteko potentzia faktorea mantentzeko obligazioa dute Erakusketariek. Erakustazokako hornidura elektrikoa konpainia elektrikoaren baitan dagoenez, **"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik okerren bat gertatuz gero.

Konexio elektrikoa standaren instalatzaileak egingo du, **"Zuzendaritzaren"** ikuskapenarekin, eta sarearen erabilera hobea izan dadin **"Zuzendaritzak"** zehazten duen banaketa ikuspegia kontuan hartuta. Korronte-hartuneek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

- 20 A arteko hornidura: marechal moldeko deskonektagailua "DSN 380 V-50 Hz" 32 A-koa.

- 40 A arteko hornidura: marechal moldeko deskonektagailua "DSN 380 V-50 Hz 3P+N+T 63 A-koa.

40 A-tik gorako ekipoen kontsumoetarako, dagokion eskaera egin behar zaio **"Zuzendaritzari"**. Hartunean arestian aipaturiko deskonektagailu horiekin konexioa egingo da "DSN" moldeko hartuneen bidez; horiek standaren instalatzaileak ekarriko ditu eta konexio elektrikoa ere berak egingo du.

Erabilitako eroaleak 1.000 V-eko isolamendu tentsio izendatukoak izango dira eta ez gar barreiatzaileak (MIE BT 025 eta 028), gutxieneko sekzioa 2,5mm2-koa izango da eta linea horietan ez da loturarik onartuko.

Hartunearen sarreratik ahalik eta hurbilen koadro bat ezarriko da. Koadro horrek gutxienez izango ditu:

- Etengailu Magnetotermiko Orokorra, ebaki tetrapolarrekoa, eta hornidura linearen araberako kalibrekoa. Magnetotermiko hori ebaki bipolarrekoa izan daiteke bere kalibrea 25 A-tik gorakoa ez denean.
- Etengailu Diferentzial Orokorra, 30 mA sentsibilitatekoa eta Etengailu Magnetotermiko Orokorrarena baino kalibre txikiagoa izango ez duena.
- Etengailu Magnetotermiko Bipolarrak, 15A-tik gorako kalibrea izango ez dutenak.



3 kW-etik gorako potentzia unitarioak dituzten hartzaileak banaka babestuko dira koadrotik. Koadro horrek funtzionamendu zuzen eta segurua ziurtatzeko moduko tamaina eta baldintza teknikoak behar ditu, standaren egituraren bati loturik egongo da, eta ezin izango da zoruaren arrasean ezarri.

**40. art. Korronte aldaketetatik etorritako erantzukizuna**

**"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik izango behin-behinean gerta litezkeen korronte aldaketa edo etenaldietatik etor litezkeen kalte eta galeren aurrean.

**41. art. Keak eta gasak husteko instalazioak**

Standean sortutako gas edo lurrun oro, osasunerako kaltegarria edo kolektibitatearentzako gogaikarria denean, hustu egin beharko da Pabilioietatik kanpora. Horrenbestez, Erakusketariaren kontura hustubide bat muntatzea aurreikusiko da, material ez sukoiekin egina.

Era horretako instalazioak egiteko aukera **"Zuzendaritzari"** kontsultatu behar zaio aurrez, Pabilioietan okupaturiko kokalekuaren arabera.

**42. art. Aire Konprimiturako instalazioak**

Aire konprimitua behar duten Erakusketariek konpresoreak erabiltzeko baimena izango dute, honako arau hauek kontuan hartuta:

- Konpresoreak:
  Ahal den guztietan, Pabilioietatik kanpo kokatuko dira konpresoreak. Standaren barnean jarri behar izanez gero, ahaleginak egingo dira haien potentzia 3 ZP-tik gorakoa izan ez dadin, eta beharreko isolamendu eta babes neurriak hartuko dira zaratak ekidin eta baztertzeko. Zarata horiek ez dira hirurogei dezibeliotik (60 DB) gorakoak izango.
- Botilak:
  14 K arteko botila bakarra onartuko da stand bakoitzean. Botila lurraren gainean inklinatua egongo da, burualdea euskarrian ezarrita, eta giltza goialdean duela. Ontzi hutsak ez dira standean kontserbatu eta pilatuko.

Nolanahi ere, Presio Ontzi eta Presio Tresnei begira indarrean dauden araudiak beteko dira, eta baita une bakoitzean aplika daitekeen araudi osagarria ere.

**43. art. Lurrun-instalazioak**

Pabilioiek lurrun-sarearen ekipamendurik ez dute, eta galdaratxo elektrikoak edo lurrun-galdarak erabili ahal izango dira. Erakusketariek galdarak erabili ahal izango dituzte, une bakoitzean indarrean dauden xedapenak eta araudia errespetatuz betiere. Aurreikusitako baldintza horietan, "C" multzoko galdarek ez dute baimen berezirik behar izango. Nolanahi ere, **"Zuzendaritzari"** jakinarazi behar zaio.

**44. art. Gas-instalazioak**

Etxe Gasa behar izanez gero, aldi baterako Kontratua egin beharko da zuzenean VASCO GAS S.A.ren Ordezkaritzan, Oiartzun kalea, 3, 20100 Errenteria (Tfnoa. 943 - 513337)(edo bere garaian jardunean ari denean).

**45. art. Beste gasentzako instalazioak**

Indarrean dagoen araudiari egokitu beharko zaizkio instalazio horiek guztiak.

Gas-instalazio guztietan, dagozkien ziurtagiriak aurkeztu behar zaizkio **"Zuzendaritzari"**.

**46. art. Instalazio Bereziak**

Zerbitzuen Karpetan aurreikusi ez diren zerbitzu eta hornidurak, egin badaitezke, kanpoan kontratatu beharko dira hirugarren pertsona batekin, **"Zuzendaritzaren"** baimen idatzia lortu ondoren.

**47. art. Ikuskapenak**

**"Zuzendaritzak"** baimendutako langileek edozein unetan ikuska dezakete standetako edozein instalazio, arauzko aginduetara egokitzen diren egiaztatu ahal izateko, eta pertsona horiei sarrera libre uzteko obligazioa du Erakusketariak.

Era berean, **"Erakustaldiko"** ur instalazioak, hustubideak eta egokitze orokorra bere standean barrena igaro daitezen onartu behar du Erakusketariak.



## IV. ATALA. STANDEN INSTALAZIOAK

**48. art. Merkantzien sarrera**

Gipuzkoako Erakustazokara doan merkantzia oro, oso ongi identifikatuta joango da honako datu hauek garbi adierazita: Erakustazokaren helbidea, **"Erakustaldia"**, "Pabilioi" zenbakia, Stand zenbakia eta Enpresa Erakusketariaren izena. Bidaltzailearen izena, helbidea eta telefonoa ere azalduko dira.

Merkantzien iritsiera Pabilioietara ongi koordinatuta egongo da Erakusketariak baimendutako pertsonek materiala standean jaso dezaten, eta behin onartu ondoren material horren edukia ere har dezaten. Kontu horri dagokionean **"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik izango, ezta Standa eraikitzeko materialen inguruan ere.

**49. art. Ibilgailuen sarrera**

Ibilgailu guztiek gehienez ere ordu 1eko epea izango dute -**"Zuzendaritzak"** baimen berezia ematen ez badu behintzat– Pabilioietako instalazioen barnean egoteko merkantzien karga eta deskarga lanetarako.

Deskarga egin ondoren, ibilgailuak Erakustazokatik aterako dira edo, nahi izanez gero, aparkalekuetara eramango dira. **"Erakustaldia"** hasi aurreko 24 orduetatik aurrera debekatuta egongo da ibilgailuak sartzea.

**50. art. Standetako banaketa elektrikoa**

Konexio-kaxen barnean egongo diren borneen bidez egingo dira elkartzeak eta loturak.

Ekipoen konexio malguek ez dute bi metroko luzera gaindituko, eta lan baldintzen araberako kablea erabiliko da.

Esfortzu mekanikoa jasan beharko duen kable oro armatu moldekoa izango da edo babes-hodian joango da.

Korronte hartuneen oinarriak segurtasunekoak izango dira lurrerako loturarekin. Edozein ur-hartunetik metro 1,00eko distantziatik gora ezarriko dira.

5 ZP-ko potentzia edo handiagoa duten motor guztiek intentsitate murriztuko abio-sistemak beharko dituzte.

2,5 metroko altueratik behera dauden lanparek babesa beharko dute, lanpara horiek uki ez daitezen.

Standetako metalezko egiturak lurrera lotuko dira.

Funtzionamendurako tentsio berezia behar duten argi-errotuluen instalazioek **"Zuzendaritzaren"** baimena lortu beharko dute aurretik, eta honako baldintza hauek beteko dituzte:

- Banakako babes magnetotermikoa behar du instalatutako transformadore jasotzaile bakoitzeko.
- Behealdea 2,5 metrotik beherako altueran duten errotuluak kalitate dielektriko egokian bilduko dira.
- Altuera handiagoan jartzen diren errotuluek ez dute tentsiopeko alde bakar bat ere isolatu gabe izango.

Aurreko paragrafoan azaldutakoaz aparte, **"Zuzendaritzak"** bere Baimena kendu ahal izango du hurbileko Erakusketariei, Bisitarien joan-etorriei edo **"Erakustaldiaren"** garapen egokiari eragozpenak sortzen bazaizkie.

## 51. art. Instalazio elektrikoa erabiltzeko arauak

Erakusketariak standeko instalazio elektrikoan ezin izango du inolako aldaketarik egin instalazio hori amaitutakoan. Instalatzaileak horretarako egokituriko korronte hartuneetan edo lotura puntuetan bere hartzaileak konektatu baino ez du egingo. Irteera anizkoitzetarako konektoreak ez dira onartuko entxufe oinarri bati lotuta. Ez da onartuko, inondik ere, edozein eratako bateria edo metagailuak Pabilioien barruan kargatzea. Horiek standetan sartzea onartuko da aurretik **"Zuzendaritzari"** jakinarazi eta hark baimena eman ondoren, eta inguruetan "Erretzea debekatua" dagoela dioten kartelak jarriko dira.

Sakelako telefonoak ez diren hari gabeko ekipoen erabilera onartuko da baldin eta Erakustazokakoak deituriko instalazioetan oztoporik sortzen ez badute. Baliabide horiek erabili nahi dituzten Erakusketariek fabrika marka, erabilitako maiztasuna eta duen irismena jakinarazi beharko dizkiote **"Zuzendaritzari".**

## 52. art. Eraikuntza eta dekorazioko Xedapen Orokorrak

Pabilioietako horma, sabai, zoru edo zutabeetan ezin izango dira zuloak egin, torlojuak sartu, takoak sartu, erretenak egin edo iltzeak sartu.

**"Zuzendaritzaren"** baimen espres eta idatzia ez izanez gero, egitura-elementuetan ezin izango dira materialak jarri edo zintzilikatu (dekorazio eta erakusketa materialak eta abar).

Pabilioietako horma, sabai, zoru edo zutabeetan ezin izango dira moketak edo eraikuntza elementuak ukipen-kolarekin edo antzekoekin itsatsi; horrelakoak bi aldeko zinta itsaskorraren bidez itsatsiko dira, edo bestela, zoladuratik aparte dagoen beste edozein oholtza edo baliabidetan. Erakusketariak edo dekoratzaileak horiek guztiak kendu egingo ditu **"Erakustaldia"** amaitzean.

Moketa itsasteko zintaren ezaugarriak:

- Bi aldeko zinta itsaskorra, polietileno/urdineko euskarriz bereizia.
- Lodiera. 0,16 mm.
- Euskarria. Polietileno urdin Itsaskorra: akrilikoa
- Itsaskortasuna alde erauzgarrian: 4 N/25 mm.
- Itsaskortasuna alde normalean: 20 N/25 mm.
- Hausturaren luzapena: %214
- Trakzioarekiko erresistentzia hausturaraino (%214): 26 N.

## 53. art. Merkantzien irteera

Merkantzien irteera **Irteera-orria** izeneko inprimakian zehaztuko da eta orri hori **"Zuzendaritzan"** aurkeztuko da. **"Erakustaldi"** bakoitzerako **Zerbitzuen Karpetan** eskainiko da inprimaki hori.

## 54. art. Merkantziak erretiratzea

**"Erakustaldiaren"** azken egunean, erakustaldi hori amaitu ondoren eta **"Erakustaldi"** bakoitzaren Araudian zehaztutako ordutegian merkantziak soilik eskuz erretiratu ahal izango dira. Horretarako, argiteria piztuta egongo da. Egun horretan ezin izango dira ibilgailuak Erakustazokan sartu.



Erakusketariak diru-kopuru batzuk ordaindu gabe baditu, standean dauden merkantziak, Erakusketariaren nahiz hirugarrenen jabetzakoak izan, bahitura gisa geratuko dira ordainketa-berme moduan diru-kopuru horiek ordaintzen diren arte, eta aurreko atalean aipaturiko ekintza judiziala ere aplikatu ahal izango da. Horrenbestez, kasu honetan, ukatu egingo dira merkantziak ateratzeko Baimenak.

Zehaztutako epean amaituko dira desmuntatzea eta merkantziak ateratzeko lana. Epe hori gainditzen bada, Erakusketariaren kontura stand bat desmuntatzeko edo merkantziak mugitzeko eskubidea izango du **"Zuzendaritzak"**. **"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik atera eta biltegira eramaten diren bitartean merkantzia horiek jasan ditzaketen kalteen aurrean. Merkantzia horiek hogeita hamar (30) egunetan ez badira biltegitik ateratzen, **"Zuzendaritzak"** dagokion ekintza judiziala hasi ahal izango du Erakusketariaren aurka, izandako gastuen (garraioa, biltegia eta zaintza) eta sorturiko kalteen ordaina hartu ahal izateko.

Erakutsitako ekipoak eta produktuak eta dekorazio-elementuak Erakustazokatik ateratzeko, dagokion **Irteera-orria** erakutsi beharko da **Zerbitzuen Karpetan** zehaztutako modu eta baldintzetan.

Kasu guztietan, Erakusketarien kontura izango dira okupaturiko espazioko hormak eta zorua konpontzeko lanak, horiek egoera onean utzi behar baitira.

## V. ATALA. DISEINUKO STANDETARAKO ARAU OSAGARRIAK

**55. art. FICOBAtik kanpoko Enpresek hornitutako Stand Libreen eraikuntza (Diseinuko Standa)**

Standak beren gustuaren arabera eraikitzeko ahalmena dute Erakusketariek, instalazioak eta **"Zuzendaritzaren"** arauak, aurrerago azalduko dira horiek, errespetatuz betiere.

Diseinu libreko standak eraikitzea erabakitzen duten Erakusketariek, **"Erakustaldia"** hasi baino gutxienez hirurogei (60) egun lehenago, Proiektu bat bidali behar diote **"Zuzendaritzari"** honek onar dezan. Bestela, **"Zuzendaritzak"** ez du onartuko aipaturiko muntaia hori.

**"Proiektutzat"** hartuko da Erakusketariak jarri nahi duen diseinuko standa diseinatu eta gero eraikitzeko jarduera zehazten duen dokumentu teknikoa. Proiektuaren irismena, bere edukia eta teknikari erredaktorearen egile-izatea edo erantzukizuna, eraiki nahi den diseinuko standaren garrantziaren eta ezaugarrien araberakoak izango dira. Halatan, Proiektu-dokumentu hori txikia izango da aurrera eraman nahi den jarduera txikia bada, teknika eta eraikuntza mailan konplexutasunik gabea, eta arriskurik gabea; aldiz, Proiektu hori homologatu beharreko dokumentu tekniko izango da dagozkion industria homologazioak eta erabilera baimenak behar dituen diseinuko stand aurrefabrikatu bat eraiki nahi bada; edo bestela Proiektu partikularra izango da, eskumena duen teknikari tituludunak idatzi eta sinatua eta bere Kolegio profesionalak ontzat hartua. Edozein dela ere dokumentu tekniko gisa duen irismen maila, Erakusketariak sinatu beharko du Proiektu oro.

Proiektu horretan Memoria, Baldintza Plegua, Dokumentazio Grafikoa eta Aurrekontua jasoko dira. Indarrean dagoen araudia, diseinaturiko soluzioak, kalkulu justifikatiboak bai egiturenak bai aurreikusitako instalazioenak, erabili beharreko eraikuntza sistemak eta aurreikusitako akaberak betetzen dituela egiaztatu beharko da. Horrekin batean, Oinarrizko Segurtasun Azterketa bat aurkeztuko da, behar izanez gero. Dokumentazio Grafikoa eskala egokian egingo da ongi irakurri ahal izateko, eta oinarri informatikoa duten sistema grafiko berriekin osatu ahal izango da, nahi izanez gero.

Proiektuaren bi ale aurkeztu behar zaizkio **"Zuzendaritzari"**, eta hark, baimena ematen badu, aleetako bat Erakusketariari itzuliko dio berriro. Ale horretan, beharreko diligentziaren bidez, bere baimena edo ezadostasuna azalduko du "Zuzendaritzak", eta azken kasu horretan, obrak ezin izango dira egin beste Proiektu bat aurkezten ez den bitartean. Proiektu horretan beharreko aldaketak jaso beharko dira eta berriro ere baimena lortzeko tramitera eramango da.

Aurrez onartutako Proiektura egokitzen ez diren instalazio eta obra guztiak bertan behera utzi edo/eta aldatzeko eskubidea du **"Zuzendaritzak".**

Erakusketariari Zerbitzuen Karpetan bidaltzen zaion Muntaia Baimenaren inprimakia igorri behar diote, behar bezala beteta, enpresa muntatzaileek **"Zuzendaritzari".** Era berean, enpresa muntatzaileak Proiektua sinatu behar du, bertan zehaztutakoa ezagutzen duela egiaztatzeko. Baldintza horiek ezinbestekoak dira standa eraikitzeko.

**56. art. Standen Eraikuntza eta Dekorazioa**

Erakusketariak edo dekoratzaileak kokalekuaren ezaugarri berezien informazioa eduki behar du. Era berean, ezagutu egin behar ditu Pabilioien egituraren zati izanik bere standean egon litezkeen elementuen (ur-mahukak, sute-ahoak, banaketa-kutxak, hustubideak eta abar) egoera eta tamaina, horiek errespetatu egin behar baitira.



Pabilioien barnealdean debekatuta dago zangak, ainguraketak edo beste eraikuntza aldaketak egitea, **"Zuzendaritzak"** horretarako baimen espresa eman duenean salbu, aurrez proiektua aurkeztu eta **"Zuzendaritzak"** derrigorrezko txostena egin ondoren.

Zoruan hormigoia edo mortairua jartzea debekatuta dago eraikineko zorutik bereizteko elementu bat jartzen ez bada (burdinazko edo altzairuzko xafla, zurezko ohola xafla iragazgaitzarekin eta abar). Era berean, zuzenean eraikineko zoruan iltzeak sartzea debekatuta dago pistola pneumatikoak erabilita.

Baimendu gabeko obra horietakoren bat egiteko behar handia izanez gero, **"Zuzendaritzari"** baimena eskatu behar zaio, **"Erakustaldia"** hasi baino gutxienez sei (6) aste lehenago, behar hori dokumentatuz, eta hala behar izanez gero, plano akotatuak aurkeztuko dira, erakutsi beharreko produktuen edo jarri beharreko dekorazioaren pisua eta euskarri-azalera zehaztuta. Baimena ematen bada, lanak **"Zuzendaritzak"** edo hark baimendutako enpresak egingo lituzke. Zuzendaritzak aurrekontu bat aurkeztuko luke, ukituriko eraikuntza bere jatorrizko egoeran uzteko gastuak eta ordainketa modua zehaztuta. Erakusketariak onartu egin beharko du aurrekontu hori.

**"Erakustaldiak"** irauten duen bitartean ezin izango dira instalazioak berriro margotu edo konpondu. Benetako beharra balego, salbuespen gisa baimena emango du **"Zuzendaritzak"** eta lan horiek zein ordutan egin behar diren jakinaraziko du.

**57. art. Standen neurriak**

Lau (4) metro lineal luze baino gehiagoko itxitura itsuak eta perimetralak ez dira onartuko korridore aldera, gutxienez metro bateko (1) tarte zeharrargitsua ez badute. Gehienez ere zazpi (7) metro luzeko itxitura itxiak egin ahal izango dira standaren barrualdera gutxienez metro bat (1) atzera emanez.

**"Zuzendaritzak"** adierazpen espresa ez badu egiten, seinaleak, banderak, fokuak, eta eraikuntza eta dekorazio elementuak ezin izango dira standaren perimetrotik aurrera hogeita hamar (30) cm baino gehiago atera, edozein dela ere onartutako altuera.

Standen altuera gorena hiru (3) metro da, stand normalizatuak bi metro eta erdikoak (2,5) izanik.

Standaren neurriak aukerarik ematen badu, eta ikuspena kentzen ez badu, dekorazio-motibo batek altuera hori gainditu ahal izango du, bost (5) metro arte. Kasu horretan, **"Zuzendaritzari"** kontsulta egin eta hark onartu ondoren, 3 x 3 metro dira oinarrian onartzen diren neurriak.

Arauak ez badira betetzen, **"Zuzendaritzak"** standa desmuntatu edo prezintatzeko eskubidea izango du, ukituriko Erakusketariari inolako kalte-ordainik eman gabe. Gainera, arau horiek ez betetzeagatik sorturiko gastu guztiak bere kargu hartu beharko ditu Erakusketariak.

**58. art. Sabaien instalazioak Standetan**

Erakusketariek sabai batez itxi dezakete beren standa, suteetatik babesteko agindu teknikoak eta segurtasun alorreko araudia errespetatzen badituzte.

Standen sabaiak goragoko planoetatik ikusi daitezkeenez, haien akaberak dekoraziozkoa izan behar du derrigorrez. Multzo osoak ikuspegi atsegina izan dezan, **"Zuzendaritzak"** sabaien akaberan aldaketak egiteko eskatu ahal izango du, nahiz eta horrek Erakusketariari gastu osagarriak sortu.

Sabaia duten standek ezin dute sabai hori erabat itxita izan.

## 59. art. Standak tarteko oinarekin

**"Zuzendaritzak"** standak tarteko oinarekin muntatzeko baimena eman ahal izango du, honako ezaugarri hauek betetzen badituzte:

A) Standaren azalera gutxienez berrehun (200) m2-koa edo handiagoa denean.
B) Tarteko oin horretan eraiki beharreko azalera standaren guztizko azaleraren ehuneko berrogeita hamar (%50) izango da gehienez.
C) Standen altuera gorena zoruaren arrasean, beren lerro perimetralean, lau (4) metrokoa izango da.
D) Edozein dekorazio-elementu jartzeko altuera gorena zazpi (7) metro izango da, eta horretarako, zoruaren arrasean dagoen standa metro bat (1) atzera eman behar da barnealderantz bere perimetro osoan.

Tarteko oina erabil daiteke erakusketarako. Kasu horretan, tarteko zorua duten standentzako onartzen den altuera zazpi (7) metro izango da gehienez. Tarteko oin hori metro bat (1) atzera eman behar da standaren perimetro osoan.

Stand bat tarteko oinarekin eraikitzeko baimenaren eskaerarekin batera, kasu guztietan aurkeztuko dira xehetasun guztiak azaltzen dituzten planoak, eskala egokian eginak, eskumena duen goi-mailako teknikariak sinatuak eta dagokion Kolegio ofizialak ontzat hartuak (proiektuaren ikus-onetsia eta obra amaierako ziurtagiria), eta alor horretan **"Zuzendaritzak"** ez du inolako erantzukizunik izango.

Fakturazioari dagokionean, eta **"Zuzendaritzak"** kontrakorik xedatzen ez duenean behintzat, tarteko oinaren metro karratuaren prezioa pabilioiaren zoruaren gainean eraikitako espazioaren metro karratuaren prezioaren ehuneko berrogeita hamar (%50) izango da gutxienez.

## 60. art. Aireko egiturak

Argiteria-sistemen euskarri gisa aireko egiturak instalatu ahal izango dira, baldin eta egitura horiek ez badute bost (5) metroko altuera gainditzen.

Batzuetan, neurri txikiko errotulazio-elementuak instalatu ahal izango dira egitura horietatik zintzilik. Horrelakorik baimentzen bada, errotulazio-elementuen multzoaren eta standeko hormen edo/eta eraikuntzen artean beharreko tartea utzi beharko da, **"Erakustaldi"** osoaren ikuspena mugatu ez dadin.

Bi kasuetan, **"Zuzendaritzaren"** Baimena lortu beharko da horrelako elementuak eraikitzeko.

## 61. art. Korridoreen mugan dauden hormen eraikuntza

Korridore baten mugan dagoen standaren aldea kanpotik beira-arasa, fotomuntaia edo beste gorputz irten batzuekin dekoratzen bada, itxitura-horma zero koma hogeita bost (0,25) metro atzera emango da eta zero koma hogeita bost (0,25) metro standaren mugen barnean eraikiko dira, **"Erakustaldiari"** itxura atseginagoa emango baitzaio horrekin.

## 62. art. Muntatzeko baimena

Muntatzen hasteko, beharreko **Muntatzeko Baimena** eman beharko du **"Zuzendaritzak"**.



## 63. art. Muntaia

Standari dagozkion Pabilioi eta eremuetan egin behar dira muntatze lanak. Edozein arrazoirengatik stand baten muntaia aurreratu behar bada, Erakusketariak dagokion Baimena eskatu behar dio **"Zuzendaritzari"**, eta horrek baimena emango dio Pabilioien okupazioak horretarako aukerarik ematen badu. Kasu horretan, zabaltze horretatik etorritako kostuak Erakusketariaren kargura izango dira (ura, elektrizitatea, atezaintza eta abar).

## 64. art. Muntaia Erakusketaren beste Eremu batzuetan

Erakusketaren eremu batzuek, duten kokalekuarengatik, baldintza bereziak eskatzen dituzte muntatze eta desmuntatze lanetarako. Kasu horietan, Erakusketari horien beharrak aztertuko ditu **"Zuzendaritzak"** beren lana erraztu ahal izateko.

## 65. art. Muntatze eta sarrera ordutegia

Ordutegi honetan oholtza jarri, standa muntatu eta abar egin daiteke. Halaz ere, zerbitzuak eskatzeko ordutegia 8,00etatik 18,30etara izango da. Aurreikusitako ordutegi hori luza daiteke muntatze lana konplexua izateagatik edo beste edozein arrazoirengatik horrelakorik egin behar denean. Horretarako, Baimena eta baldintzak 24 ordu lehenago eskatu behar zaizkio **"Zuzendaritzari"**.

Pabilioietarako, karga eta deskarga eremuetarako eta standetarako sarrerak kasu bakoitzean zehaztuko dira **"Erakustaldiaren"** ezaugarrien arabera, eta Erakusketariei beharreko azalpenak emango zaizkie Erakustazokaren plano xeheen bidez.

## 66. art. Pertsonentzako baldintzak Muntatze eta Desmuntatze garaietan

Kasu guztietan, langileek, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dagoen legeriak, eta une bakoitzean indarrean dauden Sustapen Ministerioaren Araudiak eta eskumena duten gainerako Erakundeen araudiak zehaztutako baldintzen arabera egingo dituzte Muntatze eta Desmuntatze lanak (ikus 27. art.).

Erakusketariak eta hark standak muntatu eta desmuntatzeko kontratatuariko enpresak berehala **"Zuzendaritzari"** jakinarazi beharko diote edozein istripu edo gorabehera gertatuz gero, gorabehera horretatik ekintzan parte hartu dutenei edo hirugarren pertsonei edozein eratako erantzukizuna etortzen zaienean. Zentzu horretan **"Zuzendaritzari"** ez zaio inolako erreklamaziorik egingo eta, horrenbestez, hark ez du inolako erantzukizunik izango.

## 67. art. Segurtasunerako Xedapen Orokorrak

Standen eraikuntzak, erakutsi beharreko materialen instalazioak eta publizitate euskarriek segurtasun publikoa ziurtatzeko moduko egonkortasuna behako dute. Jendearentzako zabalik dauden plataformek, bere beheko mailatik metro bat (1) baino gorago daudenek, gutxienez laurogei (90) cm altuerako baranda beharko dute inguruan.

Standak eraiki eta instalatzeko erabiliko diren materialak (ehunak, kolak, moketak eta abar) jatorriz (fabrikazioan) su-kontrakoak izango dira.

Debekatuta dago likido sukoiak eta butano-gasa duten aerosolak erabiltzea.

Soldadura lanak egiteko garaian ingurua behar bezala babestua egongo da, eta dagokion baimena eskatuko zaio **"Zuzendaritzari"**.

Erakusketan jarritako konbustio-motorra duten ibilgailuek erregaiaren depositua hutsik eduki behar dute.

Beirateen ertzak leunduak edo babestuak egongo dira, ebakitzeko arriskurik egon ez dadin. Beirazko ateak eta erabat beiraz eginiko edozein eraikuntza begiaren parean seinalizatuta egongo dira.

Beira organikoen ertzak ere behar bezala babestuko dira, surik har ez dezaten.

**68. art. Instalazio elektrikoen baimenak diseinuko standetan**

Diseinuko standetan egiten diren argiteria eta indar instalazio elektrikoek aldez aurretik **"Zuzendaritzaren"** baimena lortu beharko dute Proiektu osoarekin batera.

Diseinuko standen instalazio elektrikoek **III. Atalean** instalazio elektrikoetarako zehaztutako izaera orokorreko baldintzak beteko dituzte **V. Atal** honetan zehaztutako baldintzez gainera.

**69. art. Instalazioen banaketa eta tokia**

Aurreko artikuluak aipagai dituen instalazioak banaketa-kutxaren sare orokorrari edo **"Zuzendaritzak"** zehaztutako lekuari lotuko zaizkio. Korronte hartune bakoitzak taula bat beharko du beharreko ahalmenaren etengailu eta fusibleekin.



## VI ATALA. STANDEN FUNTZIONAMENDUA

**70. art. Sarrera beste enpresa Erakusketari batzuen Standetara**

Debekatuta dago beste edozein Erakusketariren standera sartzea jendeari irekita dagoen ordutegitik kanpo, standaren titularrak baimen espresa ematen duenean salbu.

**71. art. Mugi daitezkeen Makinak eta Tresnak**

**"Erakustaldia"** egiten den bitartean funtzionamenduan erakutsi behar diren instalazio, tresna edo ekipo guztiei arrisku eta istripuen prebentziorako beharreko babes eta segurtasun baliabide guztiak jarri behar dizkie Erakusketariak, instalazio horiei begira indarrean dauden arau teknikoek eskatu bezala.

Makineria edo haren alde batzuk funtzionamenduan erakutsi behar bazaizkie Bisitariei, babes arruntaren ordez beira organiko edo antzeko material gardeneko estaldura bat erabili ahal izango da. Arau-haustea gertatuz gero, Erantzukizun Zibileko Aseguru-polizak estaliko du edozein istripuren erantzukizuna hirugarren pertsonei edo gauzei eginiko kalteengatik kopuru mugagabean (ikus 11. art.)

Makineria hori geldirik dagoenean eta bere helburu bakarra erakusketa denean, babes-elementu horiek kendu ahal izango dira.
Arau horren aurka arau-hauste larriak eginez gero eta makineriaren jarduna hirugarren pertsonentzako arriskutsua bada, makina hori geldiarazteko eskatu ahal izango du **"Zuzendaritzak"**.

Araudi komunitarioak eta aplikatu beharreko gainerako legeriek xedaturikoaren arabera, Europako Batasuneko marka ez duten eta **"Erakustaldian"** aurkezten diren makina edo segurtasun osagai guztietan kartel batzuk jarriko dira, ageriko tokian, eta horietan argi eta garbi adieraziko da Europako Batasunaren adostasunik ez dutela, eta makina edo segurtasun osagai horiek ezin izango direla erosi fabrikatzaileak edo Europako Batasunean legez egokituriko haren ordezkariak xedapen horietara egokitzen ez dituen artean.

**72. art. Standei kasu egitea**

**"Erakustaldia"** zabalik dagoen bitartean standei kasu egiteko eta bere produktuak erakusteko konpromisoa hartzen du Erakusketariak.

**73. art. Zaratak eta bibrazioak**

Ahalik eta gehien murriztu behar dira zarata ateratzen duten makina erakustaldiak, gainerako Erakusketariei eta Bisitariei eragozpenik ez sortzeko. Maila akustikoak ezin ditu 60 DB gainditu.

Era berean, beharreko elementu motelgailuak erabiliko dira makinek sortzen dituzten bibrazioak baztertzeko.

**74. art. Segurtasuna**

Gas sukoiez betetako puxikak ezin izango dira erabili Pabilioien barnean.

Standean ez badago erretzea debekatua, beharreko hautsontziak jarriko dira.

Standean ezin izango dira material sukoiez eginiko ontziak erabili zaborrak botatzeko. Paperontziak eta zakarrontziak arratsaldero hustu behar dira, ixteko orduan, **"Zuzendaritzak"** horretarako jarritako edukiontzietan.

Standean ezin izango da inolako ontzi edo enbalajerik pilatu.

Seinalizazio-argiak, su-itzalgailuak, sute-ahoak eta gainerako babes ekipoak ezin izango dira inondik ere estali, ez eta larrialdietarako irteerak blokeatu.

Despatxu, biltoki edo zutabeen itxituretan ezin izango dira produktu sukoiak pilatu. Era berean, konexio-kutxetarako sarbideak (elektrizitatea, telefonoa, gasa, ura eta abar) eta Pabilioiko ekipo edo aretoetarako sarrerak ezin izango dira giltzaz itxi.

Pabilioien barnealdean ezin izango dira aire beroko kondentsazioa duten klimatizazio tresnak instalatu.

Hemen jaso ez den edozein zirkunstantziatan, Gipuzkoako Erakustazokako Segurtasun Plana aplikatuko da.

Ezin izango dira usai txarra botatzen duten eta gainerako Erakusketariei edo bisitan etortzen den jendeari eragozpenak sor dakizkiekeen materia arriskutsuak, sukoiak, lehergarriak edo osasungaitzak eduki edo erakutsi.

**"Erakustaldiak"** irauten duen bitartean debekatuta dago Erakustazokaren barruan zelulosa-pinturak lainoztatzea edozein eratako objektuen gainean.

Erakusketariak edo haren ordezkariek Erakustazokako horma, instalazio eta abarretan eginiko kalte oro **"Zuzendaritzak"** konponduko du Erakusketariaren kontura.

**75. art. Asaldura edo nahasmenduak**

Erakusketari batek edozein eratako nahasmenduak sortzen baditu, bere standa ixteko eskubidea izango du **"Zuzendaritzak"**, eta hala behar izanez gero, **"Erakustaldia"** utzaraziko dio inolako kalte-ordainik eman gabe. Stand hori husteko gastuak Erakusketariak ordainduko ditu.

Era berean, **"Zuzendaritzak"** stand bat itxi ahal izango du, muntaia garaian edo **"Erakustaldia"** egiten den bitartean, Erakusketariak zehaztutako baldintzetakoren bat ez badu betetzen, edo agindu judizialaren bidez.



## VII. ATALA. ZERGA, ADMINISTRAZIO ETA LEGE ALORREKO XEDAPENAK

**76. art. B.E.Z. itzultzea egoiliarrak ez direnei**

Erakusketariek BEZ itzultzeko eskatu ahal izango diote horretan eskumena duen erakundeari. Horretarako, beharreko informazioa emango zaie **"Erakustaldia"** egiten den egunetan.

**77. art. Zerga Abantailak**

Sozietateen gaineko Zerga Legeak, abenduaren 27ko 43/1995 Legea, Zergaren kuota osoari dagokion bere 34. artikuluaren 1. atalean, b) hizkian adierazitakoaren arabera, Erakusketariak, azoka, erakusketa eta antzekoetara joategatik sortzen diren gastuen kontzeptuan ordaindutako zenbatekoaren ehuneko hogeita bost (%25) ken dezake, Espainian egin direnak barne, baldin eta horiek nazioarteko izaera badute.

**78. art. Merkataritza Salerosketak**

Izaera profesionaleko Erakustaldietan ezin dira artikuluak zuzenean saldu erakustaldi horiek irauten duten bitartean bertan jasotzeko. Aipaturiko horren salbuespenak Merkataritza Jardueren 7/1994 Legeak (azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatua) xedaturikoaren arabera arautuko dira.

**79. art. Zozketen edo Ausazko Konbinazioen araudia**

Edozein zozketa, tonbola edo ausazko konbinazio egin ahal izateko, derrigorrezko baimena lortu beharko da Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzatik, eta 1991ko irailaren 2ko AGINDUAN xedaturikoa beteko da, agindu horrek arautzen baitu ausazko konbinazioak deituriko joko-modalitatea. Era berean, aplika daitezkeen beste araudi guztiak ere bete egingo dira.

Baimen hori **"Zuzendaritzari"** aurkeztu beharko zaio.

**80. art. Industri Jabetza Eskubideen babesa**

Babestu behar diren eredu erabilgarri, marrazki, maketa, asmakuntza eta markek dagozkien legezko xedapenak izango dituzte arau, eta Patente eta Marken Bulego Espainiarrean inskribatzeko eskatu behar da. Asmakuntza-Patentearen gai izan daitekeen asmakuntza oro, eta **"Erakustaldian"** erakusten den marka edo eredu, marrazki, film zinematografiko edo beste edozein eratako euskarriek aldi baterako babesa izango dute, indarrean dagoen Industri Jabetzaren araudiak xedaturikoaren arabera.

Aurreko paragrafoak aipagai duen babesa eduki nahi duten Erakusketariek eskaera-gutuna aurkeztu beharko diote **"Zuzendaritzari"** **"Erakustaldiak"** irauten duen bitartean. Gutun horretan beren datuak jarriko dituzte, eta baita babestutako produktua eta indarrean dagoen araudiaren arabera beharreko beste datu guztiak ere.

**81. art. Jabetza Intelektuala**

Bere standa irudia erreproduzitzen ez duen tresna mekaniko edo elektronikoaren bidez girotu nahi duen Erakusketariak dagozkion baimenak eskatu beharko dizkio AGEDIri edo, kasu bakoitzean ekoizleen fonogramen komunikazio publikorako eskubideak kudeatzen dituen erakundeari. Era berean, baimena eskatu beharko dio SGAEri edo, kasu bakoitzean, obren komunikazio publikorako egileen eskubideak kudeatzen dituen erakundeari.

Filmak proiektatu behar badira, Erakusketariak dagokion Baimena eskatu beharko dio haien komunikazio publikorako eskubideak kudeatzen dituen erakundeari.

Ikuskizunak egin eta era ludikoko jarduerak musika entzunaldiekin aurrera eraman nahi dituzten Erakusketariek **"Zuzendaritzari"** jakinarazi behar diote behin-behineko baimena eman dezan. Horrez gainera, Erakusketariak beharreko baimenak eskatu beharko ditu alor horretan eskumena duten Organismo, Erakunde eta Administrazioen aurrean.

**82. art. Argazkiak, Filmen proiekzioa eta Musika Erreprodukzioak**

**"Erakustaldian"** erakutsitako produktu bakar baten argazkirik ezin da egin eta ezin da filmatu ukituriko Erakusketarien baimenik gabe. **"Zuzendaritzak"** instalazioen eta standen eta horietan erakutsitako artikuluen argazkiak edo marrazkiak egin eta filmatzeko eskubidea du, eta gero bere argitalpenetan, Prentsa oharretan eta Komunikabideetan erabil ditzake erreprodukzio horiek.

Erakusketari bakoitzak soilik bere standari eta hartan erakutsitako ekipoei argazkiak egiteko eskubidea du. Nolanahi ere, Erakusketariak kontratatuko argazkilariak **"Zuzendaritzari"** baimena eskatu beharko dio, honek behar bezala kontrola dezan.

Argazkiak irekita dagoen ordutegitik kanpo egin behar badira, **"Zuzendaritzari"** Baimena eskatu beharko zaio. Argiteria elektriko osoa piztu behar bada, **"Zuzendaritzak"** baimendutako argiketariak bertan egon beharko du. Horrek guztiak sortutako kostuak Erakusketariak ordainduko ditu.

**Zerbitzuen Karpetan** zehaztutako argazkigintza zerbitzua bere eskura izango du Erakusketariak.

**83. art. Europako Komunitatetik kanpoko Ekipoak eta Merkantziak sartzea**

Gipuzkoako Erakustazokan Aduanen Zuzendaritza Nagusiak jardungo du **"Erakustaldia"** egiten den egunetan.

Argibide gehiago nahi izanez gero, honako helbide honetara jo behar da:

Gipuzkoako Aduana eta IIEE Bulegoa
Aduana kalea 20, 20300 Irun

**84. art. Ezinbesteak Bultzatutako Arrazoia**

Ezinbesteak bultzatutako arrazoiak daudenean, **"Erakustaldiaren"** lekua nahiz egunak aldatu ahal izango ditu **"Zuzendaritzak"**. Zirkunstantzia horiek ez dira arrazoi aski izango Erakusketariek beren **Parte Hartzeko Kontratua** desegiteko ez eta kalte eta galeren kontzeptuan edozein eratako konpentsazioa eskatzeko.

**"Zuzendaritzak" "Erakustaldi"** bat atzeratu edo bertan behera utzi ahal izango du horretarako arrazoirik baldin badu. Ildo horretatik, **"Erakustaldia"** egiteko beharreko baliabideak edukitzea ezinezkoa balitz –ezinbesteak bultzatutako arrazoiak daudelako-, eta zehaztutako proiektua ezin izango balitz aurrera eraman, **"Zuzendaritzak"** ordura arte jasotako Parte Hartzeko Eskaerak deuseztatu, Parte Hartzeko Kontratuak desegin eta **"Erakustaldia"** bertan behera utz dezake, Erakusketariei idatziz jakinarazita. Erakusketari horiek ezin izango dute inolako konpentsazio edo kalte-ordainik eskatu kalteak sortu zaizkiela eta irabaziak galdu dituztela alegatuz.



**"Erakustaldia"** antolatzeko lanetan ordura arte sortutako gastuak ordaindu ondoren, **"Zuzendaritzak"** gainerako kopuruak itzuliko dizkie Erakusketariei. Kopuru horiek ordaindutako kopuruen araberako proportzioan banatuko dira erakusketarien artean, eta **"Zuzendaritzaren"** aurka ezin izango dute edozein arrazoirengatik inolako errekurtsorik aurkeztu.

**"Erakustaldia"** hasi ondoren **"Zuzendaritzak"** behar baino lehenago itxi beharko balu –ezinbesteak bultzatutako arrazoiak daudelako-, aurreko paragrafoan zehaztutako bidetik jardungo da.

Salbuespenezko suposamendu horretatik etor litekeen edozein ekintzari espres uko egiten dio Erakusketariak.

**85. art. Auziak eta Auzitegi Eskuduna**

Araudi hau edo/eta geroko xedapenak ez baditu betetzen, **"Erakustaldiari"** edo Erakustazokari eragindako kalte materialengatik **"Zuzendaritzari"** kalte-ordaina emateko obligazioa sor dakioke Erakusketariari. Sorturiko kalte eta galerak konpontzeko beharreko zenbatekoaren berdina izango da kalte-ordain hori.

**"Erakustaldian"** bere partaidetzatik etorritako arrazoiren batengatik Erakusketariak **"Zuzendaritzaren"** aurka edozein eratako erreklamaziorik aurkeztuko balu, kalte-ordain kontzeptuan ezin izango du aurrez ordaindutakoa baino kopuru handiagoa eskatu.

"Ficoba Fundaziaren" Azoka Jardueren Araudi honen interpretazio, betetze edo exekuzioari loturik Erakusketariaren eta **"Zuzendaritzaren"** artean sor litekeen edozein zalantza, kontu edo desadostasun, abenduaren 5eko 36/88 Legeak aipagai duen egitatezko arbitrajearen pean jarriko da, Euskal Arbitraje Gortea arduratuko da Arbitrajearen administrazioaz eta arbitroa izendatzeaz, eta ematen den arbitraje-epaia bete egingo da derrigorrez.

Aurreko atalean zehaztutakoari kalterik egin gabe, espres zehazten da Euskal Arbitraje Gortearen esparrutik kanpo geratzen direla berankortasunari, emaniko zerbitzuak ez ordaintzeagatik eginiko erreklamazioei eta, oro har, **"Zuzendaritzarekin"** dauden diru-zorrei loturiko kontu guztiak. Kasu horietan Irungo hiriko Auzitegiek eta Epaitegiek izango dute eskumena eta haien jurisdikziopean jartzen dira espres aldeak, eta beren foruari espres uko egingo diote horrelakorik baldin badute.

Erakustaldiek hobeto jardun dezaten eta Erakusketarien eta Bisitarien eskubideak babes daitezen beste edozein neurri hartzeko eskubidea du **"Zuzendaritzak".**

**86. art. Kontratu Plegua eta Parte Hartzeko Araudiaren Onarpena**

"Ficoba Fundazioaren" Azoka Jardueren Araudi hau kontratazioko baldintza plegua da.

**Parte Hartzeko Kontratua** egin eta sinatzean, Araudi honetan xedatzen den guztiaren, eta araudi hori aplikatu eta garatzeko, **"Zuzendaritzak"** geroago har litzakeen xedapenen pean geratzen dira Erakusketariak.

**Parte Hartzeko Kontratua** sinatzean, Araudi hau eta Gipuzkoako Erakustazokako segurtasun xedapenak errespetatzeko konpromisoa hartzen du Erakusketariak.

Erakusketarien langileek eta hornitzaileek ere bete egingo dute Araudi hau. Araudia ez badute betetzen, berehala botako dira Erakusketaria eta bere langileak eta hornitzaileak, eta haiek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango.

**87. art. "Erakustaldi" bakoitzaren Araudia**

Gipuzkoako Erakustazokaren barnean egiten den **"Erakustaldi"** bakoitzak, gainera, Araudi zehatz bat izango du. Araudi horretan zehaztuko dira **"Erakustaldi"** horrek hartuko dituen Ekipoak, Produktuak eta Zerbitzuak, lekuak eta egunak, ezaugarriak, bertan eskaintzen diren zerbitzu bereziak, eta **"Erakustaldiak"** Erakusketarientzako izango dituen ekonomia kostuak. "Ficoba Fundazioaren" Azoka Jardueren Araudi honen maila berekoa da Araudi horiek betetzeko obligazioa.